# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 660

*10/2020 DEKRETUA, otsailaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.*

Urriaren 14ko 226/1997 Dekretuaren bidez, karrerako funtzionarioei eta lan-kontratudun langileei gordetako lanpostuen zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbatetan aldatu izan da, eta aldaketa horietako bat ekainaren 26ko 105/2007 Dekretuaren eskutik heldu zen; izan ere, 105/2007 Dekretuak funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendak aldatu zituen, analisi funtzionalen prozesuaren ondorioz sortuak.

2017ko urriaren 20an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia eman zuen, apirilaren 12ko 57/2016 Dekretuaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko 327/2016 auzi-errekurtsoan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua aldatu zen (2016ko apirilaren 15eko EHAA). Bada, epai horren bidez, 57/2016 Dekretua deuseza deklaratzen da, honako lanpostu honen sorrerari dagokionez: lan-ikuskaritzako burua; lanpostu-kodea: 511211; destino-osagarria: 28; osagarri espezifikoa: I-B; dotazioak: 4, 5, 6 eta 7.

Administrazioko barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira lanpostuen zerrendak. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan agindutakoa betetzeko.

Epai hori behar bezala betearazteak berekin dakar lanpostuen zerrenda aldatzea, horretarako xedatutako prozeduraren arabera. Bestalde, aldaketa horrek deuseza deklaratu den dekretuaren egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hau da, 2016ko apirilaren 16tik aurrera, epai hori berori betearazteko.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 4ko bileran proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira, eta urriaren 14ko 226/1997 Dekretua aldatzen duen ekainaren 26ko 105/2007 Dekretuaren bidez onartu ziren.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Dekretu honek 2016ko apirilaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 4an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

OTSAILAREN 4KO 10/2020 DEKRETUAREN ERANSKINA

*ANEXO AL DECRETO 10/2020, DE 4 DE FEBRERO*

ERANSKINA. LANPOSTU ZERRENDA
ANEXO. RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO

Saila / Erakunde Autonomoa: LANA ETA JUSTIZIA
Departamento / Organismo Autónomo: TRABAJO Y JUSTICIA
-------------------------------------------- 120000000000

Kudeaketa Atala: LAN IKUSKARITZAREN ZUZENDARIORDETZA
Centro Gestor: SUBDIRECCIÓN DE LA INSPECCIÓN DE TRABAJO
Egit.kodea. / Cód. Orgánico: 121140000000
Eremua / Ámbito: 0 SERVICIOS CENTRALES

ATXIKIPENA
ADSCRIPCIÓN

| LANPOSTUA PUESTO | LANPOSTUAREN IZENA DENOMINACIÓN DEL PUESTO | L.M T.P | BETE FORM | ADM ADM | AZ SU | KI.ES.AU CU.ES.OP. | D.O. C.D. | DOTAZIOA DOTACIÓN | B.O. C.E. | H.E. P.L. | DERR EGU FECHA PR | BET REQ | DEDIK. RÉG.DE | LANTOKIA DESTINO | OHARRAK OBSERVACIONES |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 511211 | LAN IKUSKARITZAKO BURUA | N | IA | EAP | A1 | A1502 | 28 | 4 | I-B | 4 | | | 100% | DONOSTIA-SAN SEBASTIAN | |
| | JEFE/A DE INSPECCIÓN | N | LD | APE | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | 5 | I-B | 4 | | | 100% | VITORIA-GASTEIZ | |
| | | | | | | | | 6 | I-B | 4 | | | 100% | BILBAO | |
| | | | | | | | | 7 | I-B | 4 | | | 100% | BILBAO | |

Langileen Zerrenda honetan agertzen diren sailkapen-taldeak Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorrean jarritakoari uko egin gabe ulertuko dira.

Los grupos de clasificación que aparecen en esta RPT se entenderán sin perjuicio de lo previsto en la Disposición Transitoria Tercera de la Ley 7/2007, de 12 de abril del Estatuto Básico del Empleado Público.

LANPOSTUA / PUESTO

Lanpostuaren kodeak sei digitu ditu: Lehengo bi digituek lanpostua zein taldetak/azpitaldeak izan ahal den adierazten dute:

51: A/B taldeak/azpitaldeak

52: C/D/E taldeak/azpitaldeak

53: E taldea/azpitaldea

Bi digitu horiek gehi azken lauek lanpostu-eredua identifikatzen du.

El código de puesto de trabajo está constituido por seis dígitos: Los dos primeros dígitos indican los posibles grupos/subgrupos de pertenencia de cada puesto:

51: grupos/subgrupos A/B

52: grupos/subgrupos C/D/E

53: grupo/subgrupo E

Estos dos dígitos junto con los cuatro últimos identifican el puesto tipo.

LANPOSTU-MOTARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A TIPO DE PUESTO

| | | | |
|---|---|---|---|
| B | LANPOSTU BEREZITUA | S | SINGULARIZADO |
| N | LANPOSTU NORMALIZATUA | N | NORMALIZADO |

LANPOSTUA BETETZEKO MODUARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A FORMA DE PROVISIÓN

| | | | |
|---|---|---|---|
| IA | Izendapen askea | LD | Libre designación |

ADMINISTRAZIOARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A ADMINISTRACIÓN

| | | | |
|---|---|---|---|
| EAE | E.A.E.KO ADMINISTRAZIOA ETA BERE ERAK. AUTONOMOAK | CAE | ADMINISTRACIÓN DE LA CAE Y SUS OO.AA |
| EAP | ESTATUAREN ADMINISTRAZIO PUBLIKO GUZTIAK | APE | TODAS LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS DEL ESTADO |
| EHAP | EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK | APV | ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS |

DOTAZIO ZENBAKIARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A NÚMERO DE LA DOTACIÓN

Lanpostu bati dagozkion dotazio kopuruaren araberako zenbakikuntza.

Numeración correspondiente al número de dotaciones de un puesto.

BERARIAZKO OSAGARRIA / COMPLEMENTO ESPECÍFICO

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erreferentziako zenbatekoak, berariazko osagarriei dagokienean.

Cuantías de referencia del complemento específico de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

| | |
|---|---|
| 0-A | 30.277,92 |
| 30 | 32.344,08 |
| VI-B | 11.333,28 |
| VIII-B | 9.467,64 |
| I-A | 28.285,44 |
| I-B | 24.082,44 |
| II-A | 25.661,88 |
| II-B | 21.810,00 |
| II-C | 18.091,56 |
| III-A | 21.052,44 |
| III-B | 17.899,20 |
| III-C | 14.881,32 |
| IV-A | 16.115,16 |
| IV-B | 13.665,12 |
| IV-C | 11.415,00 |
| V-A | 15.614,64 |
| V-B | 13.596,96 |
| V-C | 11.860,56 |
| VI-A | 12.650,40 |
| VI-C | 9.993,84 |
| VII-A | 12.058,68 |
| VII-B | 10.913,76 |
| VII-C | 9.693,72 |
| VIII-A | 10.171,92 |

Aurreko taulan ageri diren berariazko osagarrietatik bat ere ematen ez dieten dotazioek, mailari dagokienez, EAEko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko Hitzarmenaren I. Eranskinarekin bat etorriz esleituta dute.

Aquellas dotaciones a las que no se les atribuye ningún complemento específico contenido en la tabla anterior, tienen asignado el nivel de acuerdo con el Anexo I del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario al servicio de la Administración de la CAE.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA DAGOZKIEN GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A PERFIL LINGÜÍSTICO

Zenbakiak, esleitutako hizkuntza eskakizuna adierazten du.

El dígito expresa el perfil lingüístico asignado.

DERRIGORTASUN DATARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A FECHA DE PRECEPTIVIDAD

Zenbakitan, derrigortasun data (urtea eta hilabetea) adierazten da.

Se expresa en dígito el año y mes en que queda fijada la fecha de preceptividad.

JARDUTEKO MODUARI DAGOZKION GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A RÉGIMEN DE DEDICACIÓN

| | | |
|---|---|---|
| | Jarduteko modua ohikoa edo egun osokoa ez dena duten lanpostuetan dedikazio hori dagokion ehunekoaz adierazten da. | En los puestos con dedicación normal o reducida, ésta se expresa con el porcentaje correspondiente. |
| D.E. | Prestasun eta Erantzukizun Bereziarengatiko osagarria, EAEren zerbitzupean lanean diharduten funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 69. artikuluaren arabera. | Complemento de Especial Responsabilidad y Dedicación conforme al Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario al servicio de la Administración de la C.A.P.V. art. 69. |

ESPERIENTZIAKO URTEAK / AÑOS DE EXPERIENCIA

511966 EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOKO IDAZKARIA - 10 urtez aritu izana, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6,4 artikuluarekin bat etorriz.

510268 GIZARTE GAIEN ARDURADUNA - 5 urteko esperientzia gizarte gaietako arloan, Gizarte-zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzko irailaren 14ko 238/2010 Dekretuaren 8. artikuluarekin bat etorriz.

511966 SECRETARIO DE COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI - 10 años de experiencia de acuerdo con el artículo 6,4 de la Ley 9/2004 de 24 de noviembre de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

510268 RESPONSABLE ÁREA ASUNTOS SOCIALES - 5 años de experiencia en el ámbito de los servicios sociales de acuerdo con el artículo 8 del Decreto 238/2010, de 14 de septiembre, de la Alta Inspección en materia de Servicios Sociales.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan betetzeari eta hautatzeari eraginetarako, dagokion kidego, aukera edo eskala eta lan-kategorian sartzeko baliozkotzat joko dira Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura, Ingeniaritza Tekniko, Arkitektura Tekniko eta Diplomaturako titulazioak, baita Administrazioak baliokidetzat jotzen dituen mailako titulazioak ere.

A los efectos de selección y provisión en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos, se considerarán válidas para el acceso al Cuerpo, Opción o Escala y Categoría Laboral correspondiente, las titulaciones de Licenciatura, Ingeniería, Arquitectura, Ingeniería Técnica, Arquitectura Técnica y Diplomatura, así como las titulaciones de Grado que fueran consideradas equivalentes por la Administración.

KIDEGOEI DAGOZKIEN GAKOEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A CUERPOS

| | | |
|---|---|---|
| A1502 | LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKATZAILEEN GOI MAILAKO KIDEGOA | CUERPO SUPERIOR DE INSPECTORES DE TRABAJO Y S.S. |

BETEBEHARREI DAGOZKIEN AZALPENA / DESCRIPCIÓN DE LAS CLAVES CORRESPONDIENTES A REQUISITOS